

Sargazo itsaso zabala

Jean Rhys

Itzultzailea: Txomin Arratibel

2005

Alberdania-Elkar

Emakumea bere bakardadean

Charlotte Bronte-ren Jane Eyre eleberri viktoriarrean emakume kreolak ez ezik, Karibe-k berak jasaten duen karakterizazioaren aurka dago egina *Sargazo itsaso zabala* eleberria. Charlotte Bronte, kristau fedearen barrutik beti ere, kuraiatsua da eta errebeldea. Jean Rhys-ek, berriz zauri sakon batetik idazten du, eta erlijioa ez da inola ere kontsolamendu berarentzat.

Kreola izaki, txikitatik ezagutu ditu Antoinette protagonistak sufrimendua, mina eta bakardadea. Bazuen, ordea, babesleku bat, bizi-poz bat: bere jaioterria, bere jendea, bere ingurua, Antilletako uharteetako koloreak (berdea batez ere), soinuak, kultura eta izaera propio bezain aberats bat, Charlot Bronte-ri bere eleberrian jasotzea "ahaztu" zitzaiona. Hori guztia –eta gehiago– kendu zion Rochester senar ingelesak. Suntsipeneraino eraman zuen Antoinette, emakume apasionatu eta adoretsua izan arren, krak egiten baitu mundu patriarkalean.

Eleberri honek hainbat irakurketa izan ditzake baina bistan da, irakurketak irakurketa, Bertha pertsonaiari buruz esan gabe utzitakoa osatzen duela eta, esan bezala, Bertharen bizi-poz eta babesleku diren horiek jasotzen dituela. Hala, eleberriko alderik erakargarrienetakoa dugu Antilletako giro hori: beltzen, karibeen, arawaken eta zuri kreolen izaera, ohiturak, sineskeriak, magia, folklorea, eta, nola ez, lekuei berei ematen zaien garrantzia, leku hura baita, azken finean, Antoinetteri gelditzen zaion bizitzarekiko harreman atsegin bakarra.

Lehen pertsonan dago idatzia, bi pertsonaiaren ahotsaren bitartez. Bi ahots tartekatzen dituen lehen pertsona, hau da, narratzaile protagonistarena eta narratzaile lekukoarena. Horien bitartez, irakurleak konplizitate sententzia hartzen du eta, gainera, istorioak aurrera egin ahala, pertsonaia baten edo bestearen alde jartzeko aukera dauka, lehen pertsona horrek gertakarien gaineko norabide bakarreko objektibotasunez aritu arren, ez baitu zurrin jokatzeko, eta gauzei zein ikuspegitik begiratzen zaien, hori gailentzen baita azkenean.

Txomin Arratibel itzultzaileari, ohikoa ez bada ere, liburuari egindako hitzaurrea eskertu behar diogu lehenik, labur bezain argigarria baita eleberri gogoangarri honetara hurbiltzeko. Bestetik, bete-betean asmatu du hainbat pertsonairen hizkera berezia nabarmentzeko aditz laguntzaileak ezabatuz eta presente narratiboa itzultzeko aditzaren aspektua ondo kontuan hartuz.

Mikel Garmendia